

Aitaren zapatak

Karmele Mitxelena Etxebeste



Zumaiko Udala

*en skara
txanpan*

Aitaren zapatak

Karmele Mitxelena Etxebeste

Julene Azpeitia 27. ipuin lehiaketa

2014

2. saria

2014ko abenduan digitalizatutako ipuina.

© Karmele Mitxelena Etxebeste (ipuinarena)

© Zumaiko Udala (argitalpen honena)

Beti pentsatu izan dut gaurko egunarekin euria egingo zuela, baina beherantz doazen tanta bakarrak lepo gainean sumatzen dudan izerdiarenak dira. Kotxeak hogeita hamalau gradu markatzen ditu, eta nire kamiseta hezetuak zifra baieztatzen du. Tristeak behar lukete halako egunek, ilunak eta trumoitsuak; udan ere hiltzen dira bihotzak, ordea; ez neguan beste, baina hiltzen dira.

Mute-ri sakatu diot diskoa hirugarren aldiz ez entzutearren. Eskuin eskua bolantetik apartatu gabe zerbait hobearen bila hasi naiz atearen zirrikituetan. Ez dut isiltasuna baino ezer hoberik topatu, bost ordu eta erdian musika on guztia agortu baitzait. Isiltasun horretan, musika mutua apurtu gabe, aire giroturik gabeko kotxea madarikatu dut. Haizea darion zulodun gurpilari behin eta berriro eragin diot alde batera eta bestera epeltasun pixka baten irrikaz, baina urdinenean ere beroegi dago airea. Etsita leihatila jaitsi eta ezker besoari atseden eman diot bertan. Abiadurak buruko ileak desordenatu eta besokoak orraztu dizkit.

Ilea ez ezik kontzientzia ere astindu dit haizeak. Beste behin konbentzitu behar izan dut neure burua errepide ertzean geratu, buelta eman, eta etxera ez itzultzeko. *Mary*-k argi utzi dit ez dela etorriko. *Damon*-ekin ez dut hitz egitea lortu, baina haren ezezkoa imajina dezaket. Nik ezin nuen ez etorri, anai-arrebetan zaharrena izateak baditu bere ardurak, eta beharbada amari lur ematea da horietako bat.

Aitarekin topo egiteko aukera etorri zait lehen aldiz burura. Ez dakit ezagutuko nukeen ere, hamabi urterekin ikusi nuen azken aldiz. Nire urguilurako urteetan bere irudia ahazten saiatu naiz, bere oroitzapenak deuseztatzen, bere sudur handia, begi ondoko orezta, eta lepotik zeraman urrezko gurutzea memoriatik ateratzen. Hainbeste urteren ondoren ez dut uste azaltzera ausartuko denik, ez dut uste, ezetz esango nuke, ezetz espero dut... edo ez dakit. Badaezpada, pentsatzea galaraziko didan zerbaiten bila hasi naiz, eta irratia piztu dut.

Ikusi dut lehen kartela: *Mailrobe* 43. Bigarrena azaldu da gero: *Mailrobe* 39. Hirugarrena: *Mailrobe* 33. Eta laugarrena: *Mailrobe* 26. Hogeita sei urte dira hain zuzen ere ez naizela jaioterrira itzultzen. Bidea ez da asko aldatu hala ere. Errepide berriren bat edo beste, baina ezer gutxi. Alfer-alferrik zabaldu dut kopilotuaren eserlekuan botata dagoen mapa, espero bezala, denak berdin jarraitzen du hemen.

Mailrobe. Kartela ikusi orduko abiadura moteldu dut. *Smithill* fabrika zaharra pasatu dut; abandonatuta dago. Errepideak lehen adina zulo ditu, galipotezko petatxu batzuk hutsuneak berdintzen saiatzen badira ere. Egutegiak dioelako ez balitz, ez nuke denborak paraje hauetatik bidaiatu duenik sinetsiko. Belardiek bere horretan jarraitzen dute, orduko behien ondorengoekin ziurrenik. Noizbehinka etxe berriren bat edo beste azaltzen da, baina gehienak lehengo berak dira pintura txuriz mozorrotuta.

Herriaren erdigunera sartu eta espaloi ertzean aparkatu dut. Dendak eta kartel koloretsuak ugaritu dira, baina lehen bezain txikia izaten jarraitzen du. Mapa gaizki tolestu eta guanteran gorde dut. Eguzkitako betaurrekoak erantzi gabe, autotik irten eta umore txarreko emakume bati ehorztetxea non dagoen galdetu diot. Aurrera jarraitzeko esan dit. Berak ere aurrera jarraitu du bere bidean, ez atzera begiratu gabe. Gaur ez zen jende asko hilko *Mailrobe*-n, nor naizen jakin nahian ibiliko da, kafetegian adiskideekin partekatzeko txutxu-mutxuren baten bila.

Autotik poltsa hartu eta emakumeak adierazitako bidetik jarraitu dut. Pausoa apropos moteldu dut *Gregor*-en gozoki dendaren paretik pasatzeko. Kristalezko erakusleihu handi bat du orain, eta salmahaiaren bestaldean, litxarkeri koloretsuz inguratuta, gizonezko gazte bat dago haurrek aukeratutako gozokiak kontatzen. Ni ere kalkuluak egiten hasi naiz, txikitan hainbestetan bisitatu nahi izaten genuen agure burusoil hark gaur zenbat urte izango lituzkeen asmatu nahian. Berehala jakin dut hilda behar lukeela.

Kalearen amaieran berehala topatu dut ehorztetxea sarrerako gurutzei eta horma beltzei esker. Haur nintzela leku horretan zer zegoen oroitzen ahalegindu naiz une batez, baina ziurrenik ez zen nire intereseko ezer egongo. Arnasa sakon hartu eta barrura sartu naiz. Emakume gazte bat hurbildu zait ondo jantzita.

–Arratsalde on –esan dit.

–Kaixo. Telefonoz hitz egin dugu goizean. Nire amaren errautsen bila nator –ez zait esateko ezer hoberik bururatu.

Denda atzera eraman nau, beilatokia han omen dago. Kalearen beste aldera atera gara, eliza ondoko plazara. Aldatu da, lurra adokinatuta dute, eta nire ahalegin guztiak zapata takoidunekin lur irregularrean estropezu ez egiten ipini ditut. Iturri zaharra iturri ikaragarri bat da orain eta inguruko tabernetako terrazen erdigune bihurtu da.

–Hemen dago zure ama. Zuk esan bezala ipini dugu kutxarik merkeenean.

Gaiztoa sentitu naiz, krudela, bihozgabea. Ate ertzean geratu naiz egur koloreko kutxatik urrun, hurbiltzeko eskubiderik izango ez banu bezala. Une batez makabroa iruditu zait amaren hilotza ikusi aurretik gorpua erretzeko agindu izana. Kuriositatez ama hilda irudikatu dut orduan, argal, zuri, usteltzen hasi berri; eta hori aurrekoa baino makabroagoa iruditu zait. Errautsen kutxara hurbildu eta ehorztetxeko emakumearen aurrean lotsa sentitu dut; lotsa amaren heriotzaren aurrean ezer ez sentitzeaz. Behar dudan denbora hartzeko esan eta bakarrik utzi nau.

Ama eskuetan hartu eta lehenbailehen handik alde egiteko gogoa sentitu dut, baina are gaiztoago, krudelago, eta bihozgabeago ez sentitzearren errespetuzko bost minutu eman ditut kutxari begira. Arraro sentitu naiz, lekuz kanpo, eta beste behin konbentzitu behar izan dut neure burua buelta eman eta etxera ez bueltatzeko. Begiak itxi eta isilean *aitagure* batekin hasi naiz, baina kanpoko terrazako zalapartak eta, batez ere, barruak ez didate jarraitzen utzi.

Kutxa eskuetan hartuta plaza gurutzatu eta ehorztetxera sartu naiz berriz. Sarrerako mahaiaren zutuen paperak sinatu eta emakumea agurtu dut. Jendearen begiradak eta zurrumurruek saihestu nahian abiadura bizkortu dut espaloi gainean. *Gregor*-en denda aurretik pasatutakoan ezin izan diot ez begiratzeari eutsi, eta nire irudiarekin egin dut topo erakusleihoko kristalean, korrika, presaka, ihesian heriotza eskuetan hartuta.

Kopilotuaren eserlekuan kutxa utzi eta amasa sakon hartu dut. Autora sartzen naizen bakoitzean zigarro bat pizteko gogoia sartzen zait. Besaulkiei ez zaie urteetan itsatsitako tabako usaina joan oraindik. Hil baino askoz lehenago amak utzitako herentzia izan zen nikofinarekiko menpekotasuna. Urteekin ohartu nintzen hautsontzian indarrez zapaltzen nuen zigarro-punta bakoitza amaren oroitzapena hiltzeko alferrikako ahalegin bat gehiago besterik ez zela. Eta amaren nahiz zigarroen oroitzapenak ahazten saiatzen naiz geroztik erdiko ispiluan zintzilik dagoen kartoizko limoiari eraginez. Oroitzapenik ez, baina gaur limoi usainak ama hil duela esan dezake.

Beroak oraindik amore eman nahi ez badu ere, eguna iluntzen hasi da. Eguzkitako betaurrekoak erantzi eta herria utzi dut mendi bidea hartzeko. Lehendabiziko farolak hasi dira lanean. Autoa saltoka doa ezustean agertzen diren bideko harri eta zuloen gainetik. Ama kiskalia daraman kutxa ere balantza gehiegi egiten hasi da. Atzeko eserlekuetik nire poltsa hartu eta kopilotuaren eserlekuan ipini dut kutxaren kontra tope egiteko; ez nuke aspiragailuarekin amaren errautsak biltzen bukatu nahiko, hori bai litzatekeela makabroa.

Bideko astinduek ere ez dute nire barrua mugitzea lortu, negarrik egin gabe iritsi naiz. Urrutitik antzeman dut egurrezko etxe zaharra. Ez da askorik aldatu, orduan bezala mamuen bizileku dirudi orain ere. Bizilagunaren etxe urdin zainduak, gainera, ez dio mesederik egiten; itxura denez *Williams* jaunak udaro etxea margotzen jarraitzen du.

Eguzkiak kolorerik gabe utzitako baranda zaharraren aurrean utzi dut autoa, ziur aski, aita joan zenetik inork berriz berdez pintatu gabea. Lorategiko bidea juxtu-juxtu antzematen da metroko belar txarren artean. Autotik etxera egin beharreko bidaiak murriztu nahian, atzetik biharko arropa garbiekin betetako maleta txikia atera, eta bertan sartu dut ama. Ezker besoan beste poltsa zintzilikatu eta autoa itxi dut.

Barandako krisketa apurtuta dago, atearen bandak eta atea bera bezala; bultza, eta bakarrik zabaldu da espero nuen kirrinka baten melodiarekin. Begirada lurretik jaso gabe, ikusten ez zen lekuetan bidea imajinatu behar izan dut. Eskuko maleta gorantz altxa eta urteetan bidea konkistatu duten belarrak saihesten saiatu naiz atarira iritsi arte; eskerrak goizean praka luzeak jantzi ditudan.

Atariko aterpera igo eta bertako aulki kulunkarian eseri naiz barrura sartzeko adorea noiz helduko zain. Urteetan pipiak bapo ase dituen aulkiari gehiago geratzen zaio zulotik egurretik baino. Ez balitz eserlekuan dagoen kuxin loredunagatik, joan nintzenetik inor ez dela bertan eseri esango nuke. Amaren egunak irudikatzen ditut hemen lorerik gabeko lorategiari begira. Begiak itxi eta bertan geratu naiz tarte batez iristeko asmorik ez duen adorea esperoan.

–Zure ama ere hor egoten zen eserita –eta atearen kirrinka entzun dut gero.

Bide ezkutatutik egunaren ilunean nekez antzematen den emakume beltzaran lodikote bat ikusi dut nigana baldar hurbiltzen. Ez dut zer esan jakin, isilik geratu naiz. Hurbildu denean zutitu eta besarkada bat eman diot.

–Emakume egin zara –esan dit irribarretsu.

Afaria prestatzen ibili denaren usaina dakar. Zahartu egin dela eta gerria zabaldu zaiola esatea otu zait, baina nire izerdi usaina ez dela hobea izango pentsatu dut, ni ere zahartu naizela, eta gerria ez, baina sinpatia eza ederki zabaldu zaidala.

–Zer moduz, Margo?

Gure amak ez zuen gustuko *Williams* andrea, ez dakit zergatik, pentsatzen dut egunero ama txarra zela gogorarazten ziolako izango zela. Gure etxean ahora eramateko whiskya eta zigarroak baino ez zeudenean gaztaz betetako krepe beroak prestatzen zizkigun gordean amak ikusi gabe. Iruditzen zait etxera iristen ginenean gure arropetan plazer haren arrastoak usaindu behar zirela; baina auskalo, agian egongelako ke-lainoak salbatzen gintuen.

–Azken aldian nik laguntzen nion etxean, arnasa hartzea gero eta gehiago kostatzen zitzaion. Badakizu ez nintzela bere gogokoa, baina ez zuen beste inor. Azkenerako maite ninduela ere bazirudien –irribarre lotsati bat egin eta berehala ilundu du kopeta–. Atzo goizean hona irten ez zela ikusi nuenean banekien zerbait gertatu zitzaiola.

Amaren azken uneak irudikatzen saiatu naiz, bere itoaldietan azkena, *Margoren* aurrean gizatasun pixka bat azaltzearen behinik behin. Baina ez zait bihotza hunkitzen, ez ezatarria mintzen, ez malko-guruinik apurtzen; ezer ez.

–Ohean aurkitu nuen. Berak nahi zuen bezala hil da gutxienez, bakarrik.

–Tea nahi duzu? –galdetu diot ezezko baten itxaropenez.

Buruarekin baietz egin dit. Oraindik etxera sartzeko adorerik gabe atea zabaltzen ahalegindu naiz giltzatuta dagoela ahaztuta.

–Har ezazu, nire giltza ekarri dizut —berak larrituta–, nik jada ez dut beharko.

Giltza sartu eta urduri antzean biratu dut eskutokia. Iraganari atea zabaltzea bezala izan da. Oroitzen nuen moduan dago dena, tabako usain bera du aireak, altzariek zaharrak izaten jarraitzen dute, eta gortinak higituta daude. *Williams* andrea leiho ondoko aulkian eseri da. Nik poltsak eskailerapean utzi eta tea prestatzeari ekin diot, ahaleginari behintzat; kaxoi eta armairu guztiak zabaldu ditut ezer aurkitu ezinean. Azkenean *Margo* zutitu da, eta berak prestatu du te beroa.

–Noizbehinka etxea txukuntzen nion, hautsa pasa, ontziak garbitu, baina ez zidan gehiegi egiten uzten –eskuetan katilu banarekin hurbildu eta aldamenen eseri da–. Zer moduz dabilta anai-arrebak?

–Ez dira etorriko. Ez dugu ia harremanik, elkarrengandik urrun bizi gara. *Mary* ezkondu egin zen, eta bi alabatxo dauzka, 12 eta 7 urtekoak. Eta *Damon* hara eta hona ibiltzen da, bidaiatzen, noraezean... badakizu nolakoa zen.

–Eta zu?

–Ni ez naiz ezkondu –erantzun diot azkar, mehatxatuta sentitzen denaren moduan–. Zer moduz dago *Williams* jauna? Eta semeak? –elkarriketaren norabidea aldatu nahian nik.

–Senarra orain bost urte hil zen bihotzeko batez. Semeak noizbehinka etortzen dira bisitan, lehengo asteburuan hemen izan ziren lanean, orain beraiek margotzen dute etxea. Bi biloba dauzkat, *Lucas* eta *Noah*, begira –eta urrezko katean zintzilik daraman bihotza zabaldu du bi haurren argazkia erakusteko.

Irribarre batekin erantzun diot elkarriketarako tarte gehiago ez ematearren. Aitari buruz galdezka hasi aurretik, erlojuari begiratu diot joateko ordua dela ulertarazteko.

–Joan beharra daukat —esan du aukeratik altxatzeko ahaleginetan—. Aitaz badakizu zerbait?

Ezetz egin diot buruarekin.

Williams andrea agurtu eta etxeko bakardadera itzuli naiz. Katilu hutsak harraskan utzi eta ingurua aztertzen hasi naiz aldaketarik txikienaren bila. Hautsontziak daude han eta hemen, hemen eta han, hustu gabeak, edo hustu bezain laster berriz beteak. Hil aurretik hasi zen bere izatearen errautsak banatzen. Poltsatik egurrezko kutxa atera eta egongelako mahaiaren gainean utzi dut, hautsontzi bat gehiago izango balitz bezala.

Whisky merkeak tximini gainean jarraitzen du. Beti zegoen hasitako botilaren bat bertan, iluntzero bukatzeaz eta biharamunero erdi beteta agertzen zena. Tapoia kendu eta amaren usaina etorri zait; goragalea sentitu dut. Urteetan itzalita egon den tximiniaren hondarretara bota dut botila. Amaren urtebetetze egun hartan piztu genuen azken aldiz, oroitzen dut *Mary*, *Damon* eta hirurok oparitu genion marrazkia erabili zuela sua pizteko. Ziur nago ordutik ez duela berriro erabili, whiskyaren ondoan inork ez du suaren berorik behar izaten.

Egongelako leihotik atzeko lorategian zerbait ezberdintzen saiatu naiz, baina ilunegi dago zerua horretarako. Gogoan dut ama umoretsu zegoen egunetan saskibaloian jokatzeko gurela bertan aitak egindako alantzeko saskian. Baina gutxitan gertatzen zen hori, gehienetan gogaikariegia egiten zitzaien baloien hotsa etxeko andreari.

Egurrezko eskailerek garrasi egiten dute pausoa altxatzen dudako bakoitzean. Gure gelara sartu naiz lehenik, eta urteetan paretak apaintzen egon ziren posterren eta argazkien arrastoak ikusi ditut hormetan. Ez da bakar bat geratzen, baina asmatuko nuke arrasto bakoitzari zein irudi zegokion esaten. *Gregor*-en gozoki dendan gordean erositako marrubizko txikleekin lortutakoak izan ohi ziren, inoiz izango ez genituen Superautoen eta inoiz izango ez ginen Superizarren posterrak, baina gauero zer amestua eskaintzen ziguten bakarrak.

Tabako usaina areagotu egin da amaren logelako ate aurrean. Ohearen alde bat deseginda dago eta gau-mahaiaren gainean hautsontzia, tabako pakete erdi hutsa eta txiskeroak daude. Ama imajina dezaket hil ondoren bizi gabe utzi dituen momentuez baino gehiago erre gabe utzi dituen zigarroez penatuta. Kaxoiak miatzen hasi naiz, bere seme-alaben argazkiren bat topatu nahian, maite gintuela dioten gutunen baten bila, edo besterik gabe, ama ez hain txarra izan denaren zantzuren baten esperoan; alferrik, ordea. Ohearen bestaldean etzan eta kaxoiak bezain huts sentitu ditut logela eta emakume zorigaiztoko haren bizitza. Lehen aldiz sentitu dut amarekiko errukia, haren heriotzarekiko baino gehiago haren bizitzarekiko errukia.

Gogoan dut aita etxetik joan zen eguna. Asteburua *Blauner*darrenean pasa genuen. *Damon*-en lagun mina zen *John Blauner*, eta *Williams*darrekin batera gonbidatu gintuzten denoi euren etxera. Lorategian igerilekua zuten herriko bakarrak ziren, eta bertan kanpin dendak ipinita pasatu genuen udako gau sargori hura. Ez zitzaigun asko kostatu ama konbentzitzea, gu bistatik galtzeak poztu egiten zuen.

Igande hartan pozik iritsi baginen ere, haserre topatu genuen ama. Etxe atzeko lorategian zegoen landatu berri zituena arrosa-landareen inguruko lur harrotua berdintzen. “Aita ez da itzuliko” esan zigun begirada lurretik altxatu gabe, baina antzeman genizkion begi ondoko ubeldua eta aurpegiko harramazkak.

Ohikoak ziren haien arteko borrokak. Ez dakit aita koldarrak ez geunden egun bat aprobetxatu zuen maletak egiteko, edo amak bidali zuen etxetik begi ondoko ubeldura horien amorrazioz, baina lau horma hauen artean inork ez zuen sekula gizon haren izenik aipatu berriro.

Nire bizitzan lehen aldiz sentitu nuen amari besarkada bat emateko gogoia. Begira geratu nintzaion landareari hosto txarrak kentzen zizkion bitartean. Berehala oroitu nuen bera ere arrosa-landareak bezalakoa zela, ukituz gero min egiten duten horietakoa, eta nengoen lekuan geratu nintzen distantziatik kontsolatu nahian.

Ez zen fama oneko gizona gure aita. *Smithtill* torloju fabrikari egiten zuen lan, garai hartan herriko ia gizon guztiek bezala. Lanetik irten orduko irabazitakoa tabernan gastatzea gustatzen zitzaion, emakumeren baten konpainian bazen askoz hobea. Eguna ondo ilundu arte ez zen etxeratzen. Gu logelako leihotik zelatan egoten ginen hura noiz iritsiko, besapean botilarik eta tabakorik bazekarren ikusteko; hala ez bazen, ama umore txartu eta afaririk gabe joan behar izaten baikenuen lotara, tripa-zorriek eta beheko eztabaidek lo egiten uzten ez zigutela.

Soinu berezia egiten zuten aitaren gomazko zapatek. Fabrikako langile guztien uniforme ziren buzo urdinarekin batera. Ez zen aita ona izan, baina joan zenetik areagotu egin ziren afaririk gabeko loaldiak, hilabete bukaeretan batez ere, amari ematen zioten laguntza gutxia hilabetea baino lehen amaitzen zenean. Begiak irekita amesten nuen aitaren zapata hotsak berriro entzutearekin.

Amak maiz bidaltzen gintuen herrira whisky eta zigarro bila. Lehenago aberatsak ez baginen ere aitaren abandonuak txirotu egin gintuen. Desiratzen egoten ginen enkargu horiek egiteko, soberako diruarekin azukrezko gozokiak erosten baikenituen gaueko tripa-zorriak engainatzeko. Ama ez zen soberako txaponez oroitzen, eta oroitzen bazen, ez zigun ezer esaten, zorientsu zen bere ke artean.

Aitaren itzulera desiratzen nuen bakoitzero gurasoak adina gorrotatzen nuen neure burua. Abandonu hura justifikagaitza, ulergaitza zela pentsatzera konbentzitzen nuen neure burua. Neu nintzen, ordea, etxe hartatik ihes egingo zukeen lehenengoa. Ama maitatzen saiatzen nintzen berak gurekin jarraitzen zuela pentsatuz; berak ez gintuela abandonatu. Baina abandonatuta sentitzen nintzen arrosa-landareei guri baino kasu gehiago egiten zien aldiro, eta tabernako enkargutarako baino ez gintuela nahi sinesten nuen.

Hamazazpi urterekin joan nintzen etxetik, bakarrik, eta bakarrik egon naiz geroztik. Ez naiz ama izan, ez dut nirea bezalakoa izan nahi. Gorroto ditut gizonezkoak, nire psikologoak dio abandonurako beldurra dudalako dela. Nik bakarrik egon nahi dudalako dela esaten diot, eta kontsultatik ateratzen naizen bakoitzean negar egiten dut, bakardadean.

Leioa zeharkatu duten lehen eguzki printzek ezustean esnatu naute amaren ohe gainean. Eskumuturreko erlojuari begiratu eta oraindik goiz dela egiaztatu dut. Nagiak atera eta beheara jaitsi naiz zuzenean. Atzo mahai gainean utzitako kutxa hartu eta atzeko lorategira irten naiz.

la kolorerik gabeko belarrari begira geratu naiz mutu, izoztuta. Tristeia da lurperatzeko halako leku bat baino gehiago ez merezi izatea. Amaren arrosa gorriek oraindik sasi artean bizirik dirautela ikusi dut. Eskorga herdoilduaren gainetik pala txikia hartu, eta bide berriak zabalduz ahal bezala iritsi naiz bertaraino. Kutxa lurrean utzi, eta euriak urteetan usteltzea lortu ez duen pala zikinarekin zuloa egiteari ekin diot arrosapean.

la hasi orduko lur barruan trabatu zait pala txikia. Indarrez tira egin eta oihal zati urdin tarratatu bat atera dut. Harrituta zuloa egiten jarraitu dut, bat-batean zapata beltz batzuekin topo egin dudan arte. Pala airera bota eta atzerantz erori naiz ikaratuta. Arrosa adar batek lepoa zauritu dit, eta minduta sentitu naiz, kanpotik zein barrutik, bihotzean ere ziztada bera sentitu baitut. Arnasa eta pala berreskuratu, eta lurra baztertzen jarraitu dut aitaren zapatak, buzo urdina eta hezurak ikusteko.

Bihotza eztarrian sumatu dut kolpeka. Nire bizitza guztia desegin da segundo bakarrean, gezurretako bizitza baten protagonista sentitu naiz. Amaren kutxa gomazko zapaten alboan kokatu, eta lehenbailehen berriz estali dut zuloa, bi besoen laguntzarekin oraingoan. Beranduegi da bizitza berri batekin hasteko.